

Literatura >

Gaston Lagaffe gazteak 50 urte bete ditu

ANGEL ERRO

Frantses mintzairako lurraldeetan oso ezaguna da Gaston Lagaffe, *Tintin* edo *Asterix*-en hedapena lortu ez badu ere. Hegoaldeko *Mortadelo* eta *Filemon*-ekin pareka genezake, neurriren batean. Izan ere, Francisco Ibañezen sorkariok ere heldu den urtean 50 urte beteko dituzte, 1958ko urtarrilaren 20an ikusi baitzuten argia. Andre Franquin belgikarra urtebete aurreratu zitzaion espainiarrari, eta, komikietan adituek diotenez, bigarrenaren komiki zintetan eragin asko eta omenaldi ez gutxi aurkituko ziren, *Mortadelo* eta *Filemon* sailean, baina batez ere Sacarino mandatu mutilarenean, Spirouren eta Gaston Lagafferren nahasketa bat omen dena, lehenaren uniforna bera daramalako eta, bigarrenak bezala, argitaletxe batean lan egiten duelako eta bertan ezin konta ahalako hondamendiak abiarazten dituelako aldiro.

Andre Franquin (1924-1997) Bruselatik hurbil den Etterbeek herrian jaio zen. Hogeita bi urte zituela *Spi-*

Komiki ospetsuaren euskarazko lehen bertsioa ere urteurrenaren ospakizunarekin bat egiteko garaiz iritsi da Euskal Herriko liburu dendetara, argitaletxe bretoi baten eskutik. Aurten ere hamar urte bete dira Andre Franquin, Gaston Lagafferren sortzailea, hil zenetik.

rou aldizkarian parte hartzen hasi zen, eta berehala Spirou pertsonaia nagusia eta Fantasio lagunaren abenturak papereratzeko erantzukizuna bere gain hartu zuen. Haren talentua arin loratu egiten da. Hala ere, haren pertsonaia ezagunena Gaston Lagaffe ezin adierazizkoa da. Narrazioaren sen berezkoak eta margo azkar eta aldi berean dotoreak segituan arrakastak ekarriko dio.

Gaston Lagaffe traketsa komiki zinta modernoaren antiheroi benazkoa bilakatu da. Akats asko egiten ditu, ahulezia erakusten du, hitz egiteko molde hurbila (*m'enfin* bezalako ez jositako), ezin ezkutuzko alferkeria, eta aldi berean darion prestutasun bortxatu ga-bea, horrek guztiak ordura arte heroi tipikoek bakarrik zegoen atxikimendu baten jabe egiten du Gaston.

Komikilari honen eragina nabarmena da gaur egunera arte. Tintinen aita Herge herrikideak berak goraipatu izan du («Franquinen ondoan margogile hutsa naiz» esatera iritsi zen), marrazteko estilo guztiz ezberdinetan aritzen baziren ere. Hergek lerro argia landu zuen, Espainiako olerkigintzan joera poetiko bat bataiatzeko ere baliatu izan dena; eta Franquinek ilun-argietan oinarrituriko modu nabarragoan lan egin zuen. Bera rekin batera, Morris (Lucky Luke), Peyo (*Schtroumpf*-ak edo *Pitufo*-ak) eta Tillieux aipa daitezke, *Spirou* aldizkariaren inguruan bilduak denak.



SANTA ZEZILIA ANDOAINen

Azaroak 21 – 20:00 Basteron
Cuba-ko Sine Nomine abesbatza

Azaroak 22 – 20:00 Basteron
“Loving Mozart” Teatro Estudio de San Sebastián eta Anne Landa

Azaroak 23 – 20:00 Basteron
“Haize Dantzak” Pablo Sorozabal haize bostekoa

Azaroak 24 – 20:00 Basteron
Pello Ramirez – “Haize Oihalak”

Azaroak 25 – 12:30 Basteron
Andoaingo Udal **Musika Eskolako Banda**



Sarrera guztiak dohainik.
Etorri aurretik gonbidapena hartu.
Informazio gehiago: 943-30 35 40



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA
Ingurumen Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO
Viceconsejería de Medio Ambiente

IRAGARKIA

Ingurumen sailburuordearen 2007ko urriaren 18ko ebazpenez, jendaurrean jartzea erabaki da **INDUMETAL RECYCLING SA** enpresak aurkeztu duen proiektua: Bizkaiko Erandioko udalerrian sustatzen duen txatar konplexuak hotzean tratatzeko jarduerari dagokion ingurumen baimen bateratua lortzeko aurkeztua. 2007ko azaroaren 15ean hasi eta 30 egun balioduneko epean egongo da jendaurrean proiektua.

Proiektua interesdunen eskura egongo da, kontsultatu eta bidezko irizitako alegazioak aurkeztu ahal izateko, honako leku hauetan:

Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailburuordetza Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzan, Donostia-San Sebastian kalea, 1 Vitoria-Gasteiz.

Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko Bizkaiko Lurralde Bulegoan (Gran Vía, 85, Bilbo).

Era berean, epe horretan, proiektua **Erandioko Udaletxean** kontsultatu ahal izango da. Udaletxe horretan, **2007ko azaroaren 19 eta 20an 9:00etatik 14:00etara**, teknikari bat egongo da argibide gehiago nahi dituenari erantzuteko.

Euskarri elektronikoan dagoen dosieraren oinarritzko dokumentazioa Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren web orrian (www.ingurumena.ejgv.euskadi.net) izango da, herritarrek eskura dezaten.



LANGABEINTZAKO ETA LANGILEENTZAKO
TREBAKUNTZA IKASTAROAK
ETA PRAKTIKAK ENPRESETAN

Hasieta data: 2007ko abenduak 3

- ATZERAKAO HONDEAMAKINAKO LANGILEA
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETAKO TEKNIKARIA
- ILE APAINKETA-ESTETIKA
- ENKOFRATZAILEA

ARGIBIDEAK:
BEHARGINTZA ERANDIO, Desanexión 4 (Colegio Bekoa Ikastetxea).

Telefonoa: 944175616

Ordutegia: astelehenetik ostegunera 9:30-13:30 eta 16:00-18:00 eta ostiralero 9:30-13:30.

Inskripzio epea: 2007ko azaroaren 19tik 23ra

